



KONTSEILUAREN LEHEN 10 URTEAK

Euskararen normalizazioa helburu duen erakunde baten bizitzan 10 urte ez dira gehiegi, ezta gutxiegi ere. Hamar urtean, gaur egun, gauza asko gertatzen da eta Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluan joandako hamar urteotan lortu diren helburu nagusiak zenbatzeko bi eskuetako atzamar guztiak behar ditugu. Has gaitezen urratsez urrats:

Bat. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluan bildu dugu euskalgintzaren atal handi bat euskararen normalizazioan aurrera egiteko helburu konpartitu eta bakarrarekin. Euskararen unibertsoan, kokatu genuen, aho batez, lanerako planeta.

1995. urtean, 'Egunkaria Sortzen' elkarteak egindako bileran bilatu behar dira mugimendu honen erroak. Euskararen egoeraz kezkatutik, euskalgintzako hainbat lagunek foro berriak sortu beharra ikusi zuten, iritziak elkarri azaldu eta gogoetarako topaguneak atontzeko. Hainbat bilera eta mintegi egin ziren ondoren, ordura arte egindako diagnostikoa berretsi zutenak eta euskalgintzaren indarrak kohesionatu eta euskararen normalizazioan jauzi kualitatiboa eragiteko erabateko adostasuna zegoen.

Prozesu horren haritik, 1997. urteko martxoan, 'Euskararen Unibertsoa' jardunaldiak egin ziren Donostian. Euskalgintzari eta euskal gizarte osoari egindako deiak 400 eragile ingururen erantzuna jaso zuen eta, bi egunez, euskararen egoerari buruzko eztabaida mamitsuak egin ziren. Hain zuzen ere, bertan hartu zuen behin-behineko talde eragileak 'Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua' sortzeko agindua.

Beharrezko urratsak egin eta, 1997ko abenduaren 6an, Durangoko Historia Museoa sortu zen **Kontseilua**. Geroztik, apurka-apurka, Kontseilua handituz joan da.



Kontseilu osatzen duten Euskararen Gizarte Erakundearen ordezkariak orain dela 10 urte Durangon jarduna abian jartzen

Bi. Bai Euskarari kanpainari amaiera aparta eman zitzaion, Euskal Herriko bost kirol estadio betez Bilbon, Iruñean, Donostian, Miarritzen eta Gasteizen. 120.000 lagun baino gehiago bildu ziren guztira eta aldi berean.

Hiru. Gizarte-eragileen babesak bilatu dugu, geure jarduna elkarlanean oinarrituz. Hori dela eta, hainbat herritako administrazioekin, erakundeekin, sindikatuekin, eragile-politikoekin eta enpresa-elkarteekin lan egiten dugu.

Lau. Euskal Herriko lurralde guztietako 120 herritara hedatu dugu euskararen aldeko mezua 'Bai Euskarari Akordioa Herrietan' proiektuaren bidez. Horri esker, Tafalla, Amurrio, Uztaritze, Basauri edo Donostian lan egiten dugu, besteak beste.

Bost. Lan-mundua euskalduntzeko tresna asmatu dugu: 'Bai Euskarari Ziurtagiria'. Enpresek euskararen alde hartzen dituzten neurriak kreditatzeko sistema eta tresna sortu dugu. Proiektu berritzaile honek jada Euskal Herri osoko 1.500 enpresa baino gehiagotan eragiten du.

2007an Kontseiluak ‘Bai Euskarari Ziurtagiria’ indartu, hobetu eta hedatzeko Elkarte berri bat sortu zuen. Ondorioz, Ziurtagiriaren kudeaketa beste entitate batzuekin elkarlanean garatzen da. Hain zuzen, hiru bazkide motak osatzen dute egungo Elkarteak:

1. Bazkide babesleek: Kontseilua osatzen duten kideek.
2. Bazkide erabiltzaileek: Ziurtagiria duten entitateek.
3. Bazkide laguntzaileek: Ziurtagiriaren sustapenean elkarlanean aritu nahi duen edozein entitatek.

Sei. Hizkuntza-eskubideak babesteko mekanismoa ere abian jarri dugu: ‘Hizkuntz Eskubideen Behatokia’, herritarren ekarpenekin zuzenean lan egiten duena, haien eskura jarritako ‘euskararen telefonoa’ren bidez.

Euskararen lurralde batzuetan hizkuntza-eskubideen bermean atzera-pausoak ematen zirela eta beste batzuetan behar bezalako aurrera-pausorik ez zegoela ohartu zen Kontseilua eta, beraz, egoeraren diagnosi objektiboa egingo zuen erakunde independente baten beharraz jabetu zen.

Behatokia Euskal Herriko herritarren hizkuntza-eskubideez arduratzen da eta eskubide horiek Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein pribatuan, babestera zuzentzen du bere jarduera.

Behatokiak, horren aurrean,

- Euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak babestu eta defendatu ez ezik, urratzen direnean salatu ere egiten ditu.
- Euskal Herrian euskaraz mintzatzeko, administrazioari zuzendu eta administrazioetik zerbitzuak hartzeko (osasuna, hezkuntza, justizia, informazioa zein beste edozein zerbitzu), bai eta orokorrean gizarteak eskaintzen dituen aukerak euskaraz baliatzeko euskal hiztunek dituzten aukerak bermatzea ere xede du.

‘Euskararen telefonoa’ Behatokiaren zerbitzua da. Hizkuntza-eskubideen urraketei konponbidea emateko tresna zuzen eta eraginkorra izan nahi duen zerbitzu hau Euskal Herriko

edozein herritarren eta elkarteren eskura dago. Herritarrek helarazitako informazioarekin Behatokiak urtero egoeraren diagnosia egiten du, eta hori txosten batean jasotzen du. (www.euskararentelefonoa.com; 902 194 332)

Zazpi. Gizartetik etengabeko laguntza jaso dugu; eta norbanako askok euskararen aldeko konpromiso zehatzak hartu dituzte. Urtero kanpaina gisakoak egiten dira fakturak euskalduntzea, euskara ikastea, euskarazko argitalpenetara harpidetzea, euskal produktuak erostea eta abar proposatuz. Norbanakoen konpromiso horiek ezinbestekotzat jozen ditu Kontseiluak euskararen normalizazioan.

Zortzi. Nazioarteko hainbat instituzio eta erakunderekin harremanetan gaude, eta hizkuntza gutxituei buruzko foro ugaritan izan gara. Estrasburgoko Parlamentuan, Bruselako instituzioetan, Genevako Nazio Batuen erakundeetan eta abarretan. Bestalde, euskararen gisako hizkuntza gutxitu askotako ordezkariekin harreman iraunkorra dugu, esaterako, galego, kataluniar, galestar, bretoi, irlandar, okzitaniar, korsikar, saami eta abarrekin, bai eta Amerika, Asia eta Afrikako zenbait hizkuntza indigenaren ordezkariekin ere. Gainera ingelesezko *Newsletter* bat hedatzen dugu bostehun helbide hautatu baino gehiagotara, maiztasunez, euskararen berri emanez.

Bederatzi. Hizkuntza-politika eraginkorrak lortzeko eragitelana burutu dugu EAEn, Nafarroan eta Iparraldean. Halaber, Euskal Herriko 66 udalerriren hizkuntza-politika neurtu dugu normalizazioan aurrera egiteko abiapuntua definituz, eta ildo beretik jarraituko dugu etorkizunean., azterketak egiten eta hedatzen eta *Ordenantza eredugarriak* Hegoalderako, eta *Deli-bero eredugarriak* Iparralderako proposatuz, Akordio Soziopolitikoaren sinatzaile izan diren hamaika alderdi eta sindikatuen adostasunez landu direnak.

Hamar. Eskarmentu hau guztia metatuta hamaika gauza gehiago badugu egiteko. Eta gogotsu ekingo dio Kontseiluak etorkizunean ere euskararen normalizazioaren bideari. Ziur da-

go Kontseilua, orain arte bezala, ez zaizkiola bidelagunak eta laguntzaileak faltako beste hamar urtetan ere lanean aritzeko, oraindik asko falta baita euskararen normalizaziorako.

‘Bai euskararari’-tik ‘Euskaraz bai’-ra eman nahi dugun jauzia ere azalduko dugu, herriz herri zabalduko baitugu ‘Euskaraz bai’ leloa. “Euskaraz Bai” zikloa hasi nahi dugu. Hamar urte pasa eta egin dugun lanaren ondoren, gero eta garbiago ikusten dugu euskarak aurrera egingo badu zerbait gehiago behar duela, atxikimenduaz eta aldeketasunaz gainera, batez ere euskarak behar duena ikasia eta erabilia izatea dela, hots, herritarrak ‘Euskaraz bai’ esatea.

Horregatik paratu du Kontseiluak, bere 10. Urteurrenean, **‘Euskaraz bai’ adierazpena**, euskararen egoeraren azterketa eta etorkizuneko erronkak azaltzen dituen, helburu jakin eta zabalarekin: “Euskararen normalizazioaren ahaleginean batera jarduteko gonbita luzatuko diegu gizarte-eragileei, erakundeei eta jendarteari, oro har”. Orain ‘Euskaraz bai’ adierazpena zabaltzen hasiko da Kontseilua, eragileen atxikimendua eskatuz, euskararen normalizazioaren erronka guztiona baita.

Euskara Euskal Herriaren berezko hizkuntza da eta bertan izan dezakeen garapenaren baitan bakarrik ziurta daiteke bere biziraupena. Euskarak etorkizuna behar duelako, iraungo duen hizkuntza izatea nahi dugulako eta euskal herritar guztien hizkuntza izatea nahi dugulako, ezinbestekoa da euskararen garapena ziurtatzea.

Zorionez, nahiz eta euskal jendartean osoki euskaraz bizi-
tzeko aukerarik ez egon, gaur egun, neurri handi batean euskaraz bizi den jendarte zabala dago. Euskalgintza bilgune da



Euskaraz bai’ adierazpena

euskaraz bizi den jendarte horrentzat. Hortaz, euskaraz bizitzea da gure aukera. Aukera hori hartu dugunontzat euskaraz bizi ahal izateko baldintzak sortu nahi ditugu eta horretarako ari gara lanean euskalgintzan. Horregatik ere hizkuntzarentzat esparruak garatu eta zabaldu nahi ditugu; geure bizitza euskaraz normaltasunez egin ahal izateko.

XXI. mendearen hasieran euskarak bizi duen egoeraren aurrean, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko Batzar Nagusiak oinarritzko irakurketa hau egin du, euskararen egungo egoeraz:

- Egindako lanari esker euskal herritarren euskararen aldeko jarrerak azken hamarkadetan bilakaera baikorra izan duela ukaezina da. Gehiengo zabalaren jarrera euskararen aldekoa da, euskararen zabalkundea eta normalizazioa lortzearen aldekoa. Baina euskararen garapena nahi baino mantsoago ari da gertatzen.
- Euskal Herriko biztanleen laurdena euskalduna da. Azken hamarkadetan egindako ahaleginak euskaldunen kopurua handitzea ekarri badu ere, handitze hori ez da izan euskararen normalizazioa bermatzeko adinakoa.
- Erabileran ere hazkundea gertatu den arren, egoera normalizatuak izango lukeen erabilera mailaren azpitik gaude oraindik.
- Euskaldunok euskaraz bizitzeko dugun eskubidea ez dago bermatuta, eta nabarmenak dira egunero sortzen diren ezintasunak. Euskal Herriko hainbat eremutan, euskaraz bizitzeko aukera dagoenean, euskaldunak ahalegin gehigarria egin behar du hori lortzeko, ohiko funtzionamendua, lehenetsitakoa, erdaraz garatzen delako.
- Abagune honetan, euskalgintzak elkarlan-jarduera aberasgarria eraiki du. Elkarlan-giro horren emaitza oparoa da euskarari emandako bultzada, ehunka gizarte-eragileren ekarpena eta instituzioengan lortutako eragite-lana.

Aurreratutakoa kontuan izan eta normalizaziora iristeko bidea falta dela gogoan hartuta, oinarritzko ildo hauek jarraituko ditugu etorkizunera begira:

1. Euskararen berreskurapen-prozesua azkartzea ezinbestekoa da. Hau da, egun Euskal Herrian euskara ez dakitenez ikastea, eta, bere erabilera esparru eta eremu berrietan handitzea, ahalik eta eperik laburrenean. Ezagutza eta erabilera zabaltzeko aukera berriak sortzen jarraitu behar dugu.
2. Funtzio sozial guztiak euskaraz garatzeko aukera lehenbailehen lortzea ezinbestekoa da, horrela lor baitaiteke euskararen normalizazioan urrats benetakoak egitea.
3. Euskara lehentasuneko hizkuntza izatea lortu behar dugu, horrela ziurta baitaiteke euskaldunen eta biztanle guztien hizkuntza eskubideak bermatuta izatea.
4. Hori guztia egiteko lan politiko-instituzionala eta lan soziala bideratu behar dira, biak ere norabide berean. Erakunde instituzionalek, eragile politikoek, ekonomikoek eta sozialek, norbanakoek eta euskalgintzak norabide berean lan egitea ezinbestekoa da, guztion arteko lankidetzak ziurta baitezake euskararen geroa eta Euskal Herri euskalduna.

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua osatzen dugun eragileok euskararen eremu osoan euskaraz normaltasunez bizitzeko ari gara lanean. Etorkizunerako, euskalgintzan ari garen erakunde eta lagunok lanerako ilusioa eta grina dugula berretsi nahi dugu. Ahalegin horretan batera jarduteko gonbita luzatzen diegu jendarte-eragileei, erakundeei, eta gizarteari oro har.

Amaitzeko, Kontseiluak 10 urte hauetan euskara ikasi, erabili, zabaldu eta horren aldeko hautua egin duten jendarte-eragile guztiei eta pertsona guztiei zorionak eman nahi dizkie.

*Xabier Mendiguren Bereziartu
Kontseiluko idazkari nagusia*